

HARAN ATLANTIKOAK


GIPUZKOA



G•17 Aginagako urmaela

Oria ibaiaren bokale inguruetan lurzoruaren sakonune batek babestutako ur-lamina txiki bat dago; sakonune hori dela-eta, ezin da ikusi handik hurbil dagoen autobidetetik. Gaur egun ia erabili ere egiten ez den urmael horrek antzina sakonune hori guztia estali zuen ibaiertzeko basoaren zati bat kontserbatzen du.

Ertzetako landaredi ugaria zenbait anfibio eta uretako hegaztiren bizitokia da. Espezie horientzat funtsezkoa da halako eremu hezeak izatea. Dena den bertan bizi diren aleen kopurua txikia da nahitaez, uren azalera mugatua delako.



G•18 Atxulondo-Abaloz

Abalozeko erreka haran estu bat zeharkatzen du Oria ibairantz egiten duen bidean. Ingurune horretan basoa nagusitzen da, batez ere konifera-sailak, baina Abalozeko basoak eta ubideak Kantauriko ekosistemak berez duen landaredia kontserbatzen dute eta bertan honako hauek daude: harizti batek eta ibaiertzeko baso batek osatutako multzoa, jatorrizko floraren geruza desberdinetako zuhaitzi, heskai eta loreekin.

Oso ondo kontserbatuta dagoenez, arrain, anfibio eta ugaztun ugari ditu; azpimarratzekoak dira horien artean bisoi europarra eta lephahoria, benetan urria dena.

Inguruetan industrian erabiltzeko ura hartzen denez, ibaiaren ur-emia arriskuan dago, batez ere urtaro lehorretan, eta, ondorioz, uretako faunaren biziraupena ere arriskuan dago.